

## **Boletin-aren eta Egan aldikariaren aurkibideak**

Euskalerrriaren Adiskideen Elkarteak bere "Hirugarren Garaiako" berrogeitamargarren urteurrena ospatuaz (1943-1993), Gipuzkoako Sailak, urteetan zehar *BOLETIN* eta honen euskarazko gehigarria den *EGAN*-en argitarapenerako ardurari jarraituz, urtemuga berezi hau ospatzeko *AURKIBIDE NAGASI OROKORRAK* argitaratzeko erabakia hartu zuen, urteurren ospakizun ekintza nagusi bezala. Aurkibide hauek Euskalerrriko gaien ikertzaile eta historialariei zuzenduak dira bereziki, baina ez haientzat soilik.

Elkarteak betidanik izan duen efikaziaren ildoan, uste dugu, Euskalerrriaren Adiskideek atsegin handiz onartzeko moduko bileran osatu dituztela.

*BOLETIN*-aren aurkibidearen lehenengo atala, hau da, 1945-

1969 urte bitartekoa 1970. urtean Jesus Elozegi Irazusta jaunak egindako berbera da, 1970-1992 bitartekoa, Jose Maria Roldan Gual jaunak egina da, eta bi zatitan partitua dator: lehenengoan "autoreen aurkibidea" dator eta bigarreanean "gaika" eman zaigu.

*EGAN*-en aurkibideak, bestalde, haseratik 1993 urte bitarteko argitalpenak barneratu ditu. Maitte Mugika zegamarrak prestatu du, bestalde, Luis M<sup>a</sup> Mujika eta Gillermo Etxeberria laguntzaile izan dituelarik. Banaketa, lehen bezala, bi eratara egina eman zaigu: lehenengoan autoreka eta bigarreanean gaika. Erabil erraza eta edozein gai landu nahi duenak, denbora asko galdu gabe erraz aurkitzeko moduan. Lortu nahi duenak, neke haundirik gabe aurki dezake liburutegietan.

E.A.E.